

NEGUAK EZ ZAITZALA ERREPIDEAN USTEKABEAN HARRAPATU!



Negua hurbiltzen ari den honetan, Nafarroako Trafiko zuzendaritzak bide-segurtasuneko aholku hauek gogorarazten dizkizu hiru egoera desberdin hauetan.

NEGUA IRITSI AURRETIK

1 Egin autoaren azterketa osoa, neumatikoei, balaztei, direkzioari, argiei, bateriari, iragazkiei, bujiei eta izotz-kontrakoei arreta berezia jarritz.



2 Ahal baduzu, erabili neguko gurrupilak negu osoan zehar edo eraman beti kateak maletategian.


3 Ziurtatu nahitaezko segurtasun-elementuak autoan daramatzazula: txaleko islatzaileak, triangeluak edo V16 seinalea eta ordezko gurpila edo kit baliokidea.



ALERTA- EGOERAN BIDAIATZEA

1 Saihestu beharrezkoak ez diren joan-etorriak eta erabili garraio publikoa, ahal den guztietan.

2 Abiatu aurretik, jakinarazi norbaiti zure helmuga, ibilbidea eta aurreikusitako iritsiera-ordua. Horrez gain, kontsultatu errepideen egoera eta eguraldiaren iragarpena.



3 Zure ibilgailua erabiltzen baduzu, eraman nahitaezko segurtasun-elementuak: neguko gurpilak edo kateak, pala, soka eta linterna, tanga beteta, mugikorra kargatuta, arropa beroa, janari pixka bat eta ura.

4 Ez aurreratu elurra kentzeko makinak eta larrialdietarako ibilgailuak, bidean lanean ari direnean.

5 Hartu autobidea edo errepide nagusiak eta saiatu norbaitekin joaten.

6 Bidaiatu egunez. Gaez zailagoa da errepideko arriskuei antzematea.

ELURRETAN HARRAPATUTA GERATZEN BAZARA

1 Deitu 112 zenbakira eta eman zure egoeraren berri.

2 Geratu auto barruan, ez zaitetz lokartu eta piztu tarteka motorra eta berogailua (tenperatura mantentzeko); gero itzali motorra (erregaia ez agortzeko).



3 Berritu barruko airea, tarteka leihoa irekita.

4 Ziurtatu ihes-hodiak buxadurarik ez duela eta ibilgailuan kerik sartzen ez dela.

5 Sintonizatu irratia eguraldiaren iragarpena entzuteko.

6 Itxaron beste ibilgailu bat pasa arte, eta ez irten laguntza bila ekaitzaren erdian.